## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

**Departamentua:** 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0330 - Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuz Nagusia
**Programa:** 300 - Prestazio ekonomikoak, planifikazioa eta itunak
**Funtzionala:** 920 - Administrazio orokorra

**Programa mota:**

Departamentuaren egitura

**Misioa:**

Alde batetik, prestazioak kudeatu eta balorazio ekonomikoak egiten ditugu departamentu barruko beste lankideekin, udalekin eta beste eragileekin elkarlanean. Guzti hau, autonomia sustatzeko, mendekotasuna duten pertsonen eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiten laguntzeko eta gizartean ekonomikoki ahulena den sektoreari babesa emateko. Mendekotasun-prestazioen kasuan, programak eragin positiboa izan nahi du gizonen eta emakumeen berdintasunean, zaintza-lanen profesionalizazioa sustatuz.

Gainera, programa honek helburu hauek ditu:
- Foru eskumeneko gizarte zerbitzuek artatu behar dituzten gizarte beharren eboluzioa antzeman, behar horiei erantzuteko zerbitzu eta prestazio egokienak planifikatu.
- Informazio sistema bat diseinatu eta kudeatu, honen bitartez Gipuzkoako Lurralde Historikoan ematen den gizarte zerbitzuen eskaintza eta eskariari buruzko informazio eguneratua aztertu, transferitu eta zabaltzeko.
- Departamentuak hitzarmen bidez ematen dituen zerbitzuak hitzartzea eta likidatzea.
- Ordaintzen diren tarifak kalkulatzea eta bai estimazio ekonomikoak bai eskaintzen balorazio ekonomikoa egitea.
- Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa ezartzea.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Aurrekontuko programa honek hainbat prestazio biltzen ditu. Alde batetik, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala bultzatzeko prestazioak daude; horien bidez, laguntza ekonomikoa ematen diegu etxean arreta jaso nahi duten pertsonei. Eta bestetik, kotizatu gabeko pentsioak kudeatzen dira (KGP, GOF,EGLP), baliabiderik ez duten eta gizarte segurantzaren kotizatu gabeko pentsioaren onuradun izateko nahikoa kotizatu ez duten pertsonentzat. Balorazio ekonomikoari dagokionez, programa hau kudeatzen duen zerbitzuak kudeatzen ditu modu zentralizatuan gaur egun zentroetan eskaintzen diren eta partizipazio ekonomikoa duten zerbitzuak, eta baita laguntza produktuen zerbitzua ere.
Horrez gain, gure jarduera arautzen duten lege desberdinen garapena kontuan izanda, beharrezkoa zaigu eguneratutako informazioa izatea eta beharren eboluzioari aurre egiteko erantzunak diseinatzea. Gaur egun dugun informazio sistema eraikitzen ari gara oraindik, eta baditu ahultasunak zenbait arlotan.Informazio sistemaren alde publikoa hemen kontsulta daiteke: www.behagi.eus.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Gipuzkoan 31.000 pertsonak dute mendekotasuna aitortuta, biztanleriaren % 4, eta gehiago izango dira etorkizunean. Pertsona horien % 63 emakumeak dira.

Pobrezia- eta bazterketa-tasei dagokienez, AROPE tasaren arabera neurtuta, egoera horiek biztanleriaren % 16ri eragiten diote batera, eta handiagoak dira emakumeen artean ( % 17). Kasu honetan, bilakaera egoera hobetzekoa da.

**Nori zuzendua:**

Legeak aitortutako mendekotasun egoeran edo desgaitasuna duten pertsonak, autonomia sustatzeko laguntza behar dutenak edo beharreko zaintzak behar dituztenak (mendekotasuna). Eta diru sarrera gutxiko edo diru sarrerarik gabeko pertsonak (PNC, FBS, LISMI).

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Departamentuko eta udaletako gizarte zerbitzuetako teknikariak eta administrariak, tresna informatikoak, eta IZFEren asistentzia, kanpoko laguntzaileak (SIIS, unibertsitatea, bestelakoak), gastuaren aurrekontua.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Eskaerak tramitatzea, ebazpenak egitea, hilero nominak egitea, bidegabeko zenbatekoak kudeatzea, errekurtsoei erantzuna ematea, egiaztagiriak eskatzea, altak, bajak eta aldaketak eguneratzea, estatistikak eskuratzea, informazio kontsultei eta eskaerei erantzutea, aplikazio informatikoak hobetzea, onuradunei, udaletako gizarte zerbitzuei, eta gizarteari, orokorrean, informazio eguneratua ematea, erroldatze egoerak kontrolatzea, mendekotasuna baloratzea, zerbitzu bateragarriak erabiltzea, alta Gizarte Segurantzan, etab. Bestalde, balorazio ekonomikoaren esparruan, outputak dira bai balorazioak eta bai ere ondoriozko ekarpen ekonomikoen ezarpena eta eguneratzea; horrek kanpoko informazioa eskatzen du (Ogasuna, Gizarte Segurantza, etab.), eta baita ere kalkuluak, ebazpenak, jakinarazpenak erabiltzaileei eta entitate kudeatzaileei, aldizkako gurutzatzeak, etab.
Plangintza arloa, datuen eguneratzea, estatistikak lortzea, informazio eta kontsultei erantzuna ematea, sarean zabaltzea, ikerketa eta eztabaida jardunaldien sustapena, bestelako ekintzaile publiko eta pribatuekin lankidetza (plangintza, araudia, arreta eredua). Departamentuak hitzartuta dituen zerbitzuak hitzartu, kudeatu eta likidatu.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Ordaindutako prestazioak, mendekotasun egoeran dauden zaindutako pertsonak, zaintzeko laguntza duten familiak, gutxieneko diru sarrerak bermatuta dituzten pertsonak, prestazioen laguntzarekin kontratatutako pertsonak, diru sarrerak oker ordaindutako zenbatekoengatik, egindako balorazioak, eta erabiltzaileen koordainketa araudiarekin bat etorriz.
Plangintza arloari dagokionean, Gizarte Zerbitzuen Behatokia, egoera txostenak, informazio eskaeren erantzunak (prensa, Batzar Nagusiak, udalak, bestelako administrazioak, herritarrak oro har), ikerketak eta inkestak, eztabaida jardunaldiak, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen osaketa, eguneraketa eta jarraipena. Hitzarmenak eta memoria ekonomikoak. Proiektu berritzaileak.

**Programaren arau esparrua:**

- Departamentuaren eskumenei eragiten dien legedi marko orokorra: 2008ko Gizarte Zerbitzuen legea eta 2006ko Mendekotasun legea, besteak beste.
- Mendekotasun-prestazioen eta erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren erregulazioa garatzen duen foru-legeria.
- Kotizazio gabeko aldizkako prestazioei buruzko Estatuko legeria.
- Kontratazio publikoari eta dirulaguntzei buruzko legeria.
- Genero-berdintasunari buruzko legeria (3/2007 Lege Organikoa, 1/2023 Legegintzako Dekretua, 2/2015 Foru Araua eta 2020-2023 Berdintasunerako Foru Plana). Agindua: Genero-ikuspegia txertatzea; aurrekontuak banatzean lehentasuna ematea pertsonen bizitza zaintzeari eta emakumeen eta gizonen berdintasunari; sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak desagerraraztea sustatzea; estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketetan sexu-aldagaia sistematikoki txertatzea eta genero-adierazleak ezartzea; hizkera ez-sexista erabiltzea.

## 2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

**Urteko helburua:** Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta pertsonalizatuaren, kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, gizarte zerbitzuen sarea indartuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| LPPEn dauden pertsonen proportzioa, guztira FIZPE+LPPEn daudenei dagokienez. | Ehunekoa | >= | 42,00 | 38,00 | 40,00 | 43,00 |
| Erreferentziazko langileen figura duten zerbitzuen kopurua | Kopurua | = | 2,00 | 2,00 | 2,00 | 3,00 |
| Egoitzetara sartzeko pertsonen itxarote zerrenda | Kopurua | = | 870,00 | 880,00 | 880,00 | 890,00 |

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Zaintza ekosistemetan dauden ahulak edo mendekoak diren Gipuzkoako biztanleen ehunekoa | Ehunekoa | = | 56,40 | 60,00 | 65,00 | 67,00 |

## Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Sare publikoaren eskaintza gizarte premien bilakaerara egokitzea.

1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA % 60,00 | 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA % 40,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **338.018,90** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Etorkizuneko beharrak aztertzea eta Gipuzkoako gizarte zerbitzuen mapa betetzea | 338.018,90 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

**2. Ekintza lerroa:**
Etxean zainketak jaso eta ematen dituztenen bizi kalitatea bermatzea.

1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA % 99,86 | 5 GENERO BERDINTASUNA % 0,07

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **91.453.107,99** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **2.1 Ekintza**<br>PECE,PEAP eta PEVS mendekotasun prestazio ekonomikoak kudeatzea | 60.617.091,90 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **2.2 Ekintza**<br>Mendekoen familia zaintzaileei prestakuntza ematea | 127.936,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **2.3 Ekintza**<br>FBS, PNC eta LISMI prestazioak kudeatzea | 30.463.164,10 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **2.4 Ekintza**<br>Mendekotasun prestazioen onuradunen udal jarraipena bultzatzea | 236.210,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **2.5 Ekintza**<br>PEAPen dauden langileen trebakuntza sustatzea | 251,60 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **2.6 Ekintza**<br>Etxeko zainketen profesionalizazioa -LPPE- sustatu FIZPE-aren aldean: LPPEko triptikoa FIZPEko onuradunei bidali / Udaletako OGZetan LPPEa sustatu / Kostearen araberako gehieneko kopuruen bidez LPPEa nola sustatu aztertuko duen ikerketa. | 3.456,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **2.7 Ekintza**<br>FIZPEn, zainketeta ez-profesionaletan zaintzaile nagusiak ez diren gainontzeko senideen erantzunkidetasuna sustatu, horretarako zainketei buruzko oinarrizko prestakuntza eskainiz. | 4.998,39 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

## DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

**Urteko helburua:** Gizarte Zerbitzuen Maparen ezarpena bultzatu eta jarraipena egin

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| (Itxarote zerrendan dauden pertsonak / foru sareko plazak)*100. | Ehunekoa | >= | 17,00 | 14,00 | 2,00 | 11,00 |
| Plaza berrien zenbateko metatua foru sarean. | Kopurua | >= | 143,00 | 415,00 | 580,00 | 600,00 |

### Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Gipuzkoako gizarte-baliabideen sare publikoaren eskaintza bilakaerara egokitzea.

1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA % 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **1.007.681,10** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Behatokia | 118.410,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Departamentuak hitzartutako zerbitzuak kudeatzea eta ordaintzea | 889.271,10 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

**Urteko helburua:** Bateratzeko prozesuarekin jarraitu

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Dokuteka proiektuaren garapen maila. | Ehunekoa | >= | 100,00 | 45,00 | 10,00 | 100,00 |

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**
Erakunde kudeatzaileekiko harremana hobetzeko  plataforma bat garatzea

1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA % 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **251,60** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>DOKUTEKA proiektua garatzea | 251,60 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

**Urteko helburua:** Prestazio ekonomikoak eraginkorki kudeatzea.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskabidea egiten denetik 80 egun edo gutxiagotan ebatzitako ehunekoa. | Ehunekoa | >= | 85,00 | 80,00 | 85,00 | 90,00 |

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**
Foru eskumeneko zerbitzuak eta prestazioak hornitzea, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat.

1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA % 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **4.553.217,80** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Dekretu berriaren azken neurriak ezartzea | 4.552.966,20 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1.2 Ekintza**<br>Zenbait prozedura automatizatzea (Extrabot) | 251,60 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

**Urteko helburua:** Arretaren eta zainketen berrikuntza eta pertsonalizazioa sustatzea

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urtean zehar FIZPENen egon diren eta, gutxienez, jarraipen bat izan duten pertsonen proportzioa. | Ehunekoa | >= | 20,00 | 10,00 | 30,00 | 90,00 |

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**
Prestazio ekonomikoen titular diren pertsonen etxeko zaintza lanei segimendua eta babesa eskaintzeko lanak areagotzea.

1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA % 71,39

3 OSASUNA ETA ONGIZATEA % 28,61

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **220.905,60** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Udal guztiekin hitzarmenak mantentzea | 210.654,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Udalekin harreman estua mantentzea gai honetan | 10.251,60 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

**Urteko helburua:** Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoen kudeaketa egokia bermatzea

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Zerbitzuen kostea eta ekarpenen zenbatekoaren arteko oreka | Ehunekoa | >= | 33,40 | 34,00 | 34,00 | 35,00 |

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**
Gurutzapen informatikoen zenbatekoa eta kaitatea gehitu

% 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **246,38** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Gurutzapenen maiztasuna bikoiztea | 246,38 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Familia-ingurunean ematen diren mendeko pertsonen zaintza ez-profesionalak batez ere emakumeek egiten dituzte. Familia Inguruneko Zaintzarako Prestazio Ekonomikoan (FIZPE) 10 zaintzailetik 7 emakumeak dira, zehatzago esanda % 69 emakumezkoak eta % 31 gizonezkoak. Zaintzailea ezkontidea ez den kasuetan, seme-alabak, anai-arrebak edo gurasoak badira, arrakala handitu egiten da, % 73 emakumezkoa eta % 27 gizonezkoa izanik. Profesional bat kontratatu duten (profesionalen % 96 emakumezkoak dira) eta Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE) jasotzen duten familien kasuan arreta profesionalaren ordutegitik kanpoko senideen zainketak nola banatzen diren ez dakigu.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

1.- Zerbitzu hizkuntza:
Bermatu programa honen baitan eskaintzen diren zerbitzu guztiak Euskaraz ere emateko gaitasuna daukagula.

2.- Lan hizkuntza:
Programa honen baitan gauzatzen den eguneroko lanean euskararen erabilera indartu, bereziki:
- Ahozko harremanetan.
- Bileretan.
- Idatzizko harremanetan (emailak).
- Txostenen ekoizpenean.

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| **8.- Herritarrekiko harremanak** | **Ikastaroak euskaraz eskaintzea** |

## PARTAIDETZA PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Departamentuak aurrera eramaten dituen edo eraman nahi dituen politikak beste ekintzaile batzuekin kontrastatzea

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 135,21 | ( % 0,00 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 135,21 | ( % 0,00 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Kategoria % | Nola |
|---|---|---|
| **1. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA** | **( % 100,00 )** | **7. Bestelako partaidetza prozesuak** |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Programa honek bi GJHrekin du harremana: pobreziaren amaiera (1), generoen berdintasuna (5) . Alde batetik, prestazio ez kontributiboak kudeatzen ditugu, adinekoak edo desgaituak izanagatik bestelako pentsiorik ez dutenentzat. Gaur egun 3.450 pertsonak jasotzen dute PNCa, 313k FBSa eta 77k LISMI. Bestetik mendeko pertsonei zuzendutako prestazioak kudeatzen ditugu (PECE, PEAP, PVS), behar duten arretaren kostuan laguntzeko. Gaur egun 15.000 pertsonak jasotzen dute prestazio hauetako bat. Esan dezakegu gaur egun oso egonkortuak daudela kopuru hauek, beraz ezaugarri horiek izateagatik eskubidea duten pertsonen gehiengo handi batera iristen ari gara. Bestalde, Gardentasunarekin lerrokatzen da (16. helburua), datuen argitaratzea eta zabalpena egiten baita, kasu honetan gizarte zerbitzuen ingurukoak.

**Kuantifikazioa:** 97.509.461,37 ( % 99,93 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| | GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| 1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA | 1-Pobreza desagerraratzea<br><br>Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan. | **97.247.089,61** | |
| **Helburua** | 1.3 - Gipuzkoa mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, 2030. urterako, pertsona pobre eta kalteberen babes zabala lortzea | 97.247.089,61 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Foru eskumeneko zerbitzuak eta prestazioak hornitzea, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat. | 4.553.217,80 | |
| | Prestazio ekonomikoen titular diren pertsonen etxeko zaintza lanei segimendua eta babesa eskaintzeko lanak areagotzea. | 157.709,40 | |
| | Gipuzkoako gizarte-baliabideen sare publikoaren eskaintza bilakaerara egokitzea. | 1.007.681,10 | |
| | Etxean zainketak jaso eta ematen dituztenen bizi kalitatea bermatzea. | 91.325.171,99 | |
| | Sare publikoaren eskaintza gizarte premien bilakaerara egokitzea. | 202.811,34 | |
| | Gurutzapen informatikoen zenbatekoa eta kaitatea gehitu | 246,38 | |
| | Erakunde kudeatzaileekiko harremana hobetzeko plataforma bat garatzea | 251,60 | |
| 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA | 3-Osasun eta ongizatea<br><br>Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea. | **198.403,76** | |
| **Helburua** | - Osasun-estaldura unibertsala lortzea, finantza-arriskuen aurkako babesa barne, kalitatezko funtsezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea barne, eta kaltegarriak ez diren eta guztiontzako eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak diren medikamentu eta txertoak eskuratzeko aukera barne | 198.403,76 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Prestazio ekonomikoen titular diren pertsonen etxeko zaintza lanei segimendua eta babesa eskaintzeko lanak areagotzea. | 63.196,20 | |

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|
| Sare publikoaren eskaintza gizarte premien bilakaerara egokitzea. | 135.207,56 | |
| 5 GENERO BERDINTASUNA 5-Genero berdintasuna<br><br>Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea. | **63.968,00** | |
| **Helburua** 5.4 - Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera | 63.968,00 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Etxean zainketak jaso eta ematen dituztenen bizi kalitatea bermatzea. | 63.968,00 | |
| **Guztira** | **97.509.461,37** | |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2025 | 2026 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2027 | 2028 | 2029 | 2030 eta hurrengoak/ 2030 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL | 2.864.280,00 | 2.964.237,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 249.650,00 | 269.650,00 | | | | | |
| 3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 94.393.774,00 | 94.339.544,00 | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **97.507.704,00** | **97.573.431,00** | | | | | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES | | | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | | | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **97.507.704,00** | **97.573.431,00** | | | | | |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK<br>GASTOS DE PERSONAL | 2.074.965,90 | 889.271,10 | | | 2.074.965,90 | 889.271,10 |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK<br>GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 140.237,19 | 129.411,18 | | | 140.237,19 | 129.411,18 |
| 3. FINANTZA GASTUAK<br>GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 89.575.923,80 | 4.763.620,20 | | | 89.575.923,80 | 4.763.620,20 |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA<br>FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **91.791.126,89** | **5.782.302,48** | | | **91.791.126,89** | **5.782.302,48** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK<br>INVERSIONES REALES | | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **91.791.126,89** | **5.782.302,48** | | | **91.791.126,89** | **5.782.302,48** |

| Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos | 2025 | 2026 | Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto |
|---|---|---|---|
| 1. ZUZENEKO ZERGAK<br>IMPUESTOS DIRECTOS | | | |
| 2. ZEHARKAKO ZERGAK<br>IMPUESTOS INDIRECTOS | | | |
| 3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK<br>TASAS Y OTROS INGRESOS | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 44.539.773,00 | 61.387.928,00 | |
| 5. ONDARE SARRERAK<br>INGRESOS PATRIMONIALES | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **44.539.773,00** | **61.387.928,00** | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA<br>ENAJENACION DE INVERSIONES REALES | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | | | |
| 8. AKTIKO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | |
| **Guztira / Total** | **44.539.773,00** | **61.387.928,00** | |